

Ezpalak

JON TORNER

‘Aita artzain zen’. Laxalten ‘best sellerra’ zubereraz



LAXALT FAMILY. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA

SÜ AZIA zuberera sustatzeko elkarteak *Aita artzain zen* liburua plazaratuko du. Ameriketara emigratu zuen Dominique Laxalt artzainaren bizitzan oinarritutako liburua da, bere seme Robert Laxalt-ek 1957an idatzia. Jatorrizko *Sweet promised land* ingelesezko bertsoia *best seller* bilakatu zen eta ondoren hainbat hizkuntzara itzulia izan da, euskarara, tartean. 1988an argitaratu zuen Elkarrek euskara batuan, Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia, *Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan* izenburuarekin. Jean-Pierre Etchebarne mauletarrak itzuli du orain zubererara. Goiko irudian Dominique Laxalt ageri da (eskuinean). Nevadako mendietan pasa zuen ia bizitza osoa eta Euskal Herri-ira itzultzean zera esan zuen: “Hau ez da orain nire herria, urte gehiegi egin ditut Ameriketean”.

Joan Mari Torrealdai (Forua, Bizkaia, 1942) jasoko du Lauaxeta Saria, euskal hizkuntza eta kultura sustatu, hedatu eta normalizatzeko egindako lanagatik. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak eman-gio dio saria, datorren abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunen barruan.

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa munduari birak ibili dira hogeitaz. Herriminak bultzatuta Euskal Herri-ira itzuli dira *Xentimorik gabe* obra besapean dutela. Donostiako Igeldo eta Loiola auzoetan estreinatu zuten pasa den astean, eta Asier Sotaren zuzendaritzapean, Euskal Herri osoan emateko asmoz dira orain.

Georges Rouault

pintore faubista eta espresionistaren (Paris, 1871-1958) 156 obra daude ikusgai Bilboko Arte Eder museoan. Angela Lamp erakusketako komisarioak azaldu duenez, artista frantziarra oso gogorra zen bere buruarekin eta ezin izaten zuen lan bat amaitutzat eman. Erljio munduarekin lotura zuten obrak egin zituen gehienbat Rouaultek eta *Miserere* grabatu saila da erakusketaren oinarria. Parisko Pompidou zentrotik ekarri dituzte 156 margolanak. *Georges Rouault: sakratua eta profanoa* izeneko erakusketa 2011ko otsailaren 13a arte izango da zabalik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com